

Arabako ESIaren osasun–profila



2013ko herritarrak: 285.530 pertsona

- Emakumeak: % 50
- 65 urteko eta gehiagoko herritarrak: % 18

- Arabako emakumeek, EAEko gainerakoekin alderatuta, osasun hobea dute eta desgaitasunen edo arazo kronikoen prebalentzia txikia. Egoera sozioekonomiko hobean daude, haien bizilekuen inguruan gune berde gehiago daude eta fisikoki aktiboagoak dira. Kolon–ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan eta gripearen aurkako txertaketa–programan parte hartzen dutenen kopurua handiagoa da; medikuntza orokorreko eta erizaintzako kontsulta gehiago egiten dituzte, eta osasun–laguntzarako IKTen ezagutza eta erabilera handiagoa da, telefono bidezko hitzordu automatizatuen zerbitzuari balorazio eskasagoa egiten dioten arren.
- Gizonei dagokienez, EAEko gainerakoekin alderatuta, desgaitasun eta mendetasun gutxiago dutela azpimarratu behar da. Egoera sozioekonomiko hobea dute; langabezia gutxiago dute eta gizarte–babes handiagoa; alkoholaren kontsumo arriskutsu gutxiago egiten dute, haien etxebizitza ingurunean gune berde gehiago daude, eta barazki eta fruta gehiago kontsumitzen dute. Kolon–ondesteko minbizia goiz detektatzeko programan parte hartzen dutenen kopurua handiagoa da eta erizaintzako eta aho–hortzen osasuneko kontsulta gehiago egiten dituzte; osasun–laguntzarako IKTen ezagutza eta erabilera handiagoa da, baina balorazio eskasagoa egiten diote telefono bidezko hitzordu automatizatuko zerbitzuari.

Osasun Ikaskuntza eta Ikerketako Zerbitzua.
Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.
2014ko urria. Ikusteko, esteka hau erabil ezazu: <http://bit.ly/YTA3UP>

Dokumentu honek ESI honetako biztanleen osasun–profila aurkezten du, 2013ko Osasun Inkestaren adierazle nagusietan oinarrituta. Informazio hau ESIen arteko konparazioa jasotzen duen dokumentuarekin osatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus honako webgune hau: <http://bit.ly/11BasD6>

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea



	Araba	EAE	Okerrena		Onena
Osasun txarra	19,2	19,6	26,5		10,9
Bizi-kalitatea (EAB-EQ)	72,8	72,0	69,4		74,7
Antsietate-depresio sintomak	19,4	23,9	32,5		15,3
Aho-hortzen osasun txarra	20,3	26,5	40,0		19,9
Jarduera mugatuta aldi baterako	6,8	10,1	13,7		5,5
Jarduera mugatuta betiko	7,3	9,8	15,4		7,1
Neurrizko mendetasuna edo larria	12,2	15,8	18,3		12,1
Arazo kronikoak	41,5	46,9	53,0		36,7
Hipertentsioa	15,9	14,7	16,4		10,3
Kolesterol handia	9,7	10,7	13,6		6,1
Artrosia	8,1	10,0	14,1		4,2
Bizkarreko mina	4,1	8,0	13,4		2,0
Diabetesa	5,0	4,1	6,9		2,2
Nahi gabeko lesioa	6,6	7,9	12,3		5,7

Irudiak ESIko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESleiei dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESlearen balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerragoa dela adierazten du; berde batek balioa, era esanguratsuan, hobea dela, osasun-arazoa oso garrantzitsua izan daitekeen arren.

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea



	Araba	EAE	Okerrena		Onena
Osasun txarra	15,2	16,7	20,8		12,0
Bizi-kalitatea (EAB-EQ)	75,9	75,1	72,4		77,0
Antsietate-depresio sintomak	13,0	15,9	22,9		10,3
Aho-hortzen osasun txarra	20,0	25,2	40,8		13,9
Jarduera mugatuta aldi baterako	5,8	8,2	11,4		5,8
Jarduera mugatuta betiko	6,5	9,2	14,6		4,2
Neurrizko mendetasuna edo larria	4,9	8,6	16,6		4,9
Arazo kronikoak	39,8	46,4	52,6		38,3
Hipertentsioa	16,6	16,9	20,4		12,8
Kolesterol handia	11,5	13,3	17,2		9,2
Artrosia	3,7	5,3	7,3		2,5
Bizkarreko mina	3,1	6,1	8,5		2,3
Diabetesa	6,6	6,1	8,2		3,1
Nahi gabeko lesioa	7,9	8,3	11,2		3,9

Irudiak ESiko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESleiei dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESaren balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerragoa dela adierazten du; berde batek balioa, era esanguratsuan, hobea dela, osasun-arazoa oso garrantzitsua izan daitekeen arren.

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea




	Araba	EAE	Okerrena	Onena
EAEOI Langabezia	17,4	19,8	27,5	10,1
Hil bukaerara iristeko zailtasuna	29,6	46,1	60,4	28,3
Pobreziaren autopertzepzioa	47,4	57,3	67,7	34,2
Orduak etxeko/zaintzako lanetan	23,3	24,2	29,8	22,1
Ingurunean animalia gogaikarriak	4,8	8,3	12,2	4,3
Berdegune gutxiko ingurunea	1,3	5,6	11,7	1,3
Ingurune zaratatsua	3,4	5,0	6,9	1,6
Gizarte-babes afektibo gutxi	23,9	24,0	33,8	14,4
Gizarte-babes konfidentzial gutxi	5,2	5,1	9,6	0,6
Tabakismo	19,7	18,7	21,8	13,8
Tabakoaren eraginpean pasiboki	14,6	15,6	22,1	11,2
Ohiko edaleak	38,7	37,6	48,8	25,9
Alkoholaren kontsumo arriskutsua	14,2	14,7	20,2	10,1
Alkoholaren kontsumo intentsiboa	5,8	5,5	9,7	1,3
Gehiegizko pisua	39,9	39,9	53,2	35,0
Obesitatea	12,1	12,3	18,7	8,3
Fisikoki aktibo diren biztanleak	71,2	66,0	55,8	72,5
Frutak-barazkiak egunero jatea	74,5	73,0	56,0	81,4

Irudiak ESiko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESleiei dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESaren balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerrago dela adierazten du; berde batek balioa, era esanguratsuan, hobea dela, osasun-arazoa oso garrantzitsua izan daitekeen arren.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus honako webgune hau: <http://bit.ly/11BasD6>

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea



Irudiak ESiko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESleiei dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESaren balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerragoa dela adierazten du; berde batek balioa , era esanguratsuan, hobea dela, osasun-arazoa oso garrantzitsua izan daitekeen arren.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus honako webgune hau: <http://bit.ly/11BasD6>

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea



	Araba	EAE	Okerrena	Onena
Osasun-sistemarekiko gogobetetzea	89,8	89,4	86,7	92,4
Bete gabeko beharrak	5,9	5,2	8,5	1,9
Jarraitutasuna: informazioa	65,7	53,2	42,7	65,7
Jarraitutasuna: koherentzia	73,8	74,4	66,2	86,2
Jarraitutasuna: profesionalak	89,7	87,0	72,9	98,5
Titietako minbizia bahetu	96,5	94,0	88,6	100
Kolon-ondesteko minbizia bahetu	88,9	81,7	75,1	88,9
Cervix-eko minbizia bahetu	70,8	72,0	65,4	82,9
Gripearen aurkako txertaketa	74,5	67,7	54,7	79,6
Kontsulta medikuntza orokorra	82,5	80,3	83,8	74,2
Kontsulta erizaintza	59,9	48,4	61,3	30,2
Kontsulta espezializatua	55,9	57,3	67,1	49,6
Kontsulta dentista	52,3	52,5	46,4	56,9
Larrialdiak	13,5	13,9	19,5	10,8
Ospitaleratzea	8,7	7,3	10,0	4,9
Eguneko ospitalea	5,1	5,7	2,8	10,2
Zerbitzu sozio-sanitarioak	15,1	14,6	3,2	21,0
Hitzordu automatizatua ezagutu	92,1	84,3	74,8	92,1
Hitzordu automatizatua erabili	71,5	62,9	52,6	71,5
Hitzordu automatizatua baloratu	4,1	4,5	2,7	5,5
Medikuntza web-hitzordua ezagutu	62,1	52,6	30,4	62,1
Medikuntza web-hitzordua erabili	25,3	23,4	12,9	29,5
Medikuntza web-hitzordua baloratu	6,9	6,7	5,5	7,5
Erizaintza web-hitzordua ezagutu	51,6	39,3	19,5	51,6
Erizaintza web-hitzordua erabili	10,3	9,3	1,7	12,7
Erizaintza web-hitzordua baloratu	6,7	6,6	5,3	7,9

Irudiak ESiko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESle dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESaren balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerragoa dela adierazten du; berde batek balioa, era esanguratsuan, hobea dela.

- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan okerragoa
- EAEko balioaren aldean, ez dago diferentzia esanguratsurik
- EAEko balioaren aldean, era esanguratsuan hobea



	Araba	EAE	Okerrena	Onena
Osasun-sistemarekiko gogobetetzea	92,2	90,9	85,3	94,3
Bete gabeko beharrak	3,0	3,9	6,0	0,8
Jarraitutasuna: informazioa	68,1	58,4	45,7	74,6
Jarraitutasuna: koherentzia	74,0	75,1	56,9	83,4
Jarraitutasuna: profesionalak	86,9	85,7	66,7	90,5
Kolon-ondesteko minbizia bahetu	86,5	81,5	56,7	91,1
Gripearen aurkako txertaketa	76,8	72,6	52,8	81,1
Kontsulta medikuntza orokorra	75,9	74,1	83,3	65,9
Kontsulta erizaintza	54,5	43,6	56,0	27,2
Kontsulta espezializatua	43,9	45,1	52,0	32,0
Kontsulta dentista	50,3	47,4	42,2	50,7
Larrialdiak	14,2	13,2	20,3	9,5
Ospitaleratzea	8,3	7,6	9,1	5,5
Eguneko ospitalea	6,1	5,7	2,1	12,3
Zerbitzu sozio-sanitarioak	7,6	12,2	2,0	17,7
Hitzordu automatizatua ezagutu	90,1	76,8	57,6	90,1
Hitzordu automatizatua erabili	64,6	52,6	37,6	64,6
Hitzordu automatizatua baloratu	4,6	4,9	3,5	5,9
Medikuntza web-hitzordua ezagutu	65,5	49,0	26,7	65,5
Medikuntza web-hitzordua erabili	23,4	19,5	6,2	24,2
Medikuntza web-hitzordua baloratu	7,0	7,0	5,9	8,5
Erizaintza web-hitzordua ezagutu	54,1	33,1	20,2	54,1
Erizaintza web-hitzordua erabili	7,9	6,6	2,8	9,8
Erizaintza web-hitzordua baloratu	6,8	6,8	4,3	8,6

Irudiak ESiko biztanleen egoera erlatiboa erakusten du, EAE osokoarekin alderatuta. Zirkuluek ESleiei dagozkien emaitzak erakusten dituzte adierazle bakoitzari dagokionez. Lerro berdeak EAEko batez besteko balioa adierazten du. Barra grisek balio-tartea adierazten dute, ESI bakoitzeko. Zirkulu gorri batek ESaren balioa EAE osokoa baino, era esanguratsuan, okerragoa dela adierazten du; berde batek balioa, era esanguratsuan, hobea dela.

Aho-hortzen osasun txarra.	Aho-hortzen osasun "txarra" edo "hala-holakoa" dutela diotenen proportzioa.
Antsietate-depresio sintomak.	Antsietatearen eta depresioaren sintomak dituztenen proportzioa.
Arazo kronikoak.	Nolabaiteko maiztasunez ageri diren osasun-arazoak edo gaixotasun kronikoak, jarraituak edo luzerakoak dituztenen proportzioa.
Artrosia.	Artrosia dutenen proportzioa.
Bizi-kalitatea (EAB-EQ).	Euroqol-5d-5l-EAB tresnaren eskala analogiko bisualaren batez besteko balioa. Pertsona bakoitzak bere osasun egoera puntuatu du 0tik 100era bitarteko eskalan (0, imajina daitekeen osasun-egoera okerrera, eta 100, imajina daitekeen osasun-egoera onena).
Bizkarreko mina.	Bizkarra (bizkarraldea, gerrialdea, ziatika) minduta dutenen proportzioa.
Diabetesa.	Diabetesa dutenen proportzioa.
Hipertentsioa.	Arteria-presio altua dutenen proportzioa.
Jarduera mugatuta aldi baterako.	Osasun-arazoak direla-eta, eguneroko zereginak egiteko gaitasuna aldi baterako mugatuta daukatenen proportzioa.
Jarduera mugatuta betiko	Osasun-arazoak direla-eta, eguneroko zereginak egiteko gaitasuna luzerako mugatuta daukatenen proportzioa.
Kolesterol handia	Kolesterol-maila handia dutela adierazi dutenen proportzioa.
Nahi gabeko lesioa.	Inkesta egin aurreko 12 hil lehenago, nahi gabe eta istripuz gertatutako lesio motaren bat dutenen proportzioa.
Neurrizko mendetasuna edo larria	Eguneroko oinarrizko zereginak egiteko neurrizko mendetasuna edo mendetasun larria duten 65 urtekoen eta hortik gorakoen proportzioa.
Osasun txarra.	"Hala-holako" osasuna edo osasun "txarra" dutela diotenen proportzioa.

Alkoholaren kontsumo arriskutsua.	Alkohola ohituraz hartzea (astean behin, gutxienez), egunero batez beste hartzen dena luzera begira osasun-arazoak izatearekin lotzen denean; horrela edaten dutenen proportzioa.
Alkoholaren kontsumo intentsiboa	Hilero, edo maizago, denbora gutxian alkohol asko edaten dutenen proportzioa.
Berdegune gutxiko ingurunea.	Berdegune gutxiegia izatea etxe inguruneke arazoa dela uste dutenen proportzioa.
EAEOI Langabezia.	Inkesta egin aurreko astean langabezian daudela adierazi dutenen proportzioa.
Fisikoki aktibo diren biztanleak.	Jarduera fisikoa edo ariketa osasungarriak egiten dituztenen proportzioa.
Frutak-barazkiak egunero jatea.	Frutak eta barazkiak egunero jaten dituztenen proportzioa.
Gehiegizko pisua.	Gorputz-masaren indizea (GMI) 25ekoa edo handiagoa dutenen proportzioa. GMI= pisuaren (kilogramoen) eta garaieraren karratuaren (metroen) arteko erlazioa.
Gizarte-babes afektibo gutxi.	Gizarte-babes afektiboaren gabezia dutela uste dutenen proportzioa (inguruan maitasunik, samurtasunik eta enpatiarik ez dutenak).
Gizarte-babes konfidentzial gutxi.	Gizarte-babes konfidentzialaren gabezia dutela uste dutenen proportzioa (inguruan elkarrekin komunikatzeko norbait izateko aukera).

Hil bukaerara iristeko zailtasuna.	Erreferentziako pertsonaren arabera, hil bukaerara "zailtasun handiekin", "zailtasunekin" edo "zailtasun apur batekin" iristen diren etheen proportzioa.
Ingurune zaratatsua.	Kanpoko zarata gogaikarria etxe inguruneko arazoa dela uste dutenen proportzioa.
Ingurunean animalia gogaikarriak.	Eragozpenak sortzen dituzten animaliak egotea etxe inguruneko arazoa dela uste dutenen proportzioa.
Obesitatea.	Gorputz-masaren indizea (GMI) 30ekoa edo handiagoa dutenen proportzioa.
Ohiko edaleak.	Inkesta egin aurreko urtean, gutxienez astean behin edari alkoholdunak hartu dituztenen proportzioa.
Orduak etxeko/zaintzako lanetan	Etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dutenek astean batez beste ematen dituzten orduak.
Pobreziaren autopertzepzioa.	Erreferentziako pertsonaren arabera, egoera ekonomiko txiroa, oso txiroa edo batez bestekotik beherakoa duten etheen proportzioa.
Tabakismoa.	Zigarreta (elektronikoa ez), zigarro purua edo pipa egunero erretzen dutenen proportzioa.
Tabakoaren eraginpean pasiboki.	Besteren tabako-kea arnasten dutenen proportzioa.

Bete gabeko beharrak.	EAEko osasun-sistemak osasunaren arloko beharrak betetzen ez dituela uste dutenen proportzioa.
Cervix-eko minbizia bahetu.	Inkesta egin aurreko hiru urteetan zitologia egin duten 25 urtetik 64ra arteko emakumeen proportzioa.
Eguneko ospitalea.	Edozein espezialitateko prozedura diagnostiko nahiz terapeutiko bat edo errehabilitazioa egiteko, gaua igaro behar izan gabe, ospitaleren batean egunez arreta jaso dutenen proportzioa.
Erizaintza web-hitzordua baloratu.	Erizain edo emaginarengana joateko, Osakidetzaren webgunearen bitartez aurretiazko hitzordua eskatzen dutenen asebetetze-maila (balorazioa: 0tik 10era; 0, batere pozik ez, eta 10, oso pozik).
Erizaintza web-hitzordua erabili.	Erizain edo emaginarengana joateko, Osakidetzaren webgunearen bitartez aurretiazko hitzordua eskatzeko aukera baliatzen dutenen proportzioa.
Erizaintza web-hitzordua ezagutu.	Erizain edo emaginarengana joateko, Osakidetzaren webgunearen bitartez aurretiazko hitzordua eskatzeko aukeraren berri dutenen proportzioa.
Gripearen aurkako txertaketa.	Urtero gripearen aurkako txertoa jartzen duten 65 urtekoen eta adin horretatik gorakoen proportzioa.
Hitzordu automatizatua baloratu.	Telefono bidezko aurretiazko hitzordu automatizatua (Osakidetzarena) baliatzen dutenen gogobetetze-maila (balorazioa: 0tik 10era; 0, batere pozik ez, eta 10, oso pozik).
Hitzordu automatizatua erabili.	Telefono bidezko aurretiazko hitzordu automatizatua (Osakidetzarena) baliatzen dutenen proportzioa.

Hitzordu automatizatua ezagutu.	Telefono bidezko aurretiazko hitzordu automatizatua (Osakidetzarena) ezagutzen dutenen proportzioa.
Jarraitutasuna: informazioa.	Profesionalak aurrez izandako arretari buruzko informazioa —maila dena delakoa izanda ere— lortu eta baliatu zuela uste duten pazienteen proportzioa.
Jarraitutasuna: koherentzia.	Arreta-maila guztietako profesionalak egindako tratamenduen eta helburuen artean koherentzia dagoela uste duten pazienteen proportzioa.
Jarraitutasuna: profesionalak.	Sistematikoki hornitzaile bera ikusten duela (familia-mediku bera, espezialista bera) eta arreta jasotzera leku berera joaten direla uste duten pazienteen proportzioa.
Kolon-ondeteko minbizia bahetu	Kolon eta ondeteko minbizia detektatzeko programan parte hartu duten 50 urtetik 69ra artekoen proportzioa.
Kontsulta dentista.	Inkesta egin aurreko 12 hiletan, osasuna dela-eta dentista baten zerbitzua baliatu dutenen proportzioa.
Kontsulta erizaintza.	Inkesta egin aurreko 12 hiletan, osasuna dela-eta erizain edo emagin baten zerbitzua baliatu dutenen proportzioa.
Kontsulta espezializatua.	Inkesta egin aurreko 12 hiletan, osasuna dela-eta mediku espezialista baten zerbitzua baliatu dutenen proportzioa.
Kontsulta medikuntza orokorra.	Inkesta egin aurreko 12 hiletan, osasuna dela-eta mediku orokor edo pediatra baten zerbitzua baliatu dutenen proportzioa.

Larrialdiak.	Inkesta egin aurreko 6 hiletan, larrialdi bat dela-eta, ohiko ez den zentro batean edo ohikoan, baina kontsulta-orduetatik kanpo, arreta eskatu dutenen proportzioa.
Medikuntza web-hitzordua baloratu.	Familia-medikuarengana edo pediatararengana joateko, Osakidetzaren aurretiazko hitzordurako eskabidea baliatzen dutenen gogobetetze-maila (balorazioa: 0tik 10era: 0, batere pozik ez, eta 10, oso pozik).
Medikuntza web-hitzordua erabili.	Familia-medikuarengana edo pediatararengana joateko, Osakidetzaren webgunearen bitartez aurretiazko hitzordua eskatzeko aukera baliatzen dutenen proportzioa.
Medikuntza web-hitzordua ezagutu.	Familia-medikuarengana edo pediatararengana joateko, Osakidetzaren webgunearen bitartez aurretiazko hitzordua eskatzeko aukeraren berri dutenen proportzioa.
Osasun-sistemarekiko gogobetetzea.	Inkesta egin aurreko 12 hiletan baliatu dituzten osasun-zerbitzuekin pozik geratu direnen proportzioa.
Ospitaleratzea.	Ospitale batean, gutxienez egonaldi bat eginez, gau batez gutxienez —ohe bat okupatuz—, arreta jaso dutenen proportzioa.
Titietako minbizia bahetu.	Inkesta egin aurreko hiru urteetan mamografia egin duten 50 urtetik 64ra arteko emakumeen proportzioa.
Zerbitzu sozio-sanitarioak.	25 urtekoak eta adin horretatik gorakoak, desgaitasun bat dutenak, osasun-zerbitzuak baliatu dituztenak (eguneko zentroa, etxeko laguntza, laguntza teknikoak eta etxebizitza egokitzea, telelaguntza, garraio egokituko zerbitzuak, etab.); pertsona horien proportzioa.
IKT	Semaforoaren azken bederatzi aldagaiak Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berriekin lotura duten zerbitzuei buruzkoak dira; adibidez Internet, herritarrak osasun-sisteman sartzen laguntzeko.